

# 16

**BAKEA, JUSTIZIA  
ETA INSTITUZIOA  
SENDOAK**



## **BAKEA ETA JUSTIZIA**

**16. helburua. Garapen jasangarrirako Gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.**

**Funtsezko gaiak: indarkeriari, tratu txarrei eta esplotazioari aurre egitea, zuzenbidezko estatua, justizia eskuragarri izateko aukera-berdintasuna, ustelkeriaren eta eroskeriaren murrizketa, erakunde eraginkorrak eta gardenak, Informaziorako sarbidea, oinarrizko askatasunak babestea.**

### **16 HELBURUAREN ERRONKAK**

- 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.
- 16.2 Amaiera ematea hurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria-eta tortura-mota guztiei.
- 16.3 Zuzenbidezko estatua sustatzea maila nazionalean eta nazioartean, eta justizia eskuragarri izateko aukera-berdintasuna bermatzea denontzat.
- 16.4 Hemendik 2030era, nabarmen murriztea finantza-korronteak eta legez kanpoko armenak, lapurtutako aktiboen berreskurapena eta itzulera sendotzea, eta antolatutako delinkuentzia-mota guztien aurka borroka egitea.
- 16.5 Nabarmen murriztea ustelkeria eta eroskeria, bere forma guztietan.
- 16.6 Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.
- 16.7 Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan.
- 16.8 Garapen-bidean dauden herrialdeen parte-hartzea areagotzea eta sendotzea mundu-mailako gobernamendu-erakundeetan.
- 16.9 Hemendik 2030era, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere jaiotzak erregistratzearen bidez.
- 16.10 Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak

babestea, lege nazionalekin eta nazioarteko hitzarmenekin bat etorritz.

16.a Nazioarteko erakunde egokiak indartzea, baita nazioarteko lankidetzaren bidez ere, indarkeria prebenitzeko eta terrorismoari eta delinkuentziari aurka egiteko ahalmena sortzeko, maila guztietan, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan.

16.b Diskriminaziozkoak ez diren legeak eta politikak sustatzea eta aplikatzea, garapen jasangarriaren alde.

# 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIOA SENDOAK

